

Nafarroako konpainiak, Erriberrin

ANTZERKIA • Erriberriko (Nafarroa) Antzerki Jaialdia uztailaren 17tik abuztuaren 2ra arte egingo da *Poesia espainiarretik antzerki europar garaikidera* goiburuarekin, eta Nafarroako konpainiei emango die lehentasuna. Antzerki klasikoa da Erriberriko festibalaren ardatza, eta, aurten, Lope de Vega, Santa, Jorge Manrique, Tirso de Molina, Adolfo Becquer, Federico García Lorca, Calderon de la Barca, Fernando de Rojas eta Cervantesen obrak taularatuko dituzte, besteak beste. Baina, aurten, XX. mendeko idazle europarren lanak ere eramango dituzte Erriberrira, Samuel Beckett, Bertolt Brecht eta Franz Kafkarenak, hain zuzen.

Jaialdiaren 21. aldia izango da aurtengoa, eta 25 emanaldi programatu dituzte. Horietatik hamalau, Nafarroako konpainiak izango dira. Ekitaldi nagusiak Erriberriko Errege Jauregian egingo dira.

Lehenengo egunean, Mielotxinek, Lauarin dantzariak eta Hutsun txalapartariak musika eta irudia uztartuko dituen ikuskizuna aurkeztuko dute.